

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2011ko abenduaren 23a

41. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da pliken sistema erabil dezan oposizio guztietan. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azter dezan arrazoizkoa ote den Nafarroako Unibertsitateko langileen osasun prestazioa, oinarritzkoa nahiz espezializatua, kanpoan kontratatzen jarraitzea. Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroa osoan errespetatuz euskaldunen hizkuntza eskubideak. Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Errege Etxea premiatzen da urtero jakinaraz dezan nola banatzen diren Estatuko Aurrekontuen kargura jasotzen dituen diru kopuruak. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu Espainiako Gobernuak espetxe-politika malgutzearen aldekoa dela. Eledunen Batzarrak onetsia (8. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, gatazkaren biktima guztiei, bazterketarik gabe, aitortpena eta ordaina emateko eta beharrezkoa den adiskidetze sozialean sakontzeko ekimenei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (9. or.).
- Galdera, ETak ekintza armatuen behin betiko amaiera iragarri osteko segurtasun-neurriei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (9. or.).
- Galdera, 2012ra atzeratutako ordainketei buruzkoa, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egina (10. or.).
- Galdera, jakiteko zergatik Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak informazioa ukatzen dien eskatzen duten parlamentu-taldee, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (11. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Parlamentuko Mahaiaren abenduaren 19ko Erabakia, Erregistro Telematikoaren funtzionamenduari buruzkoa, Arartekoari dagokionez (12. or.).

—Mahaiaren 2010eko abenduaren 20ko erabakiaren bidez onetsitako lan-egutegia aldatzea (15. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da pliken sistema erabil dezan oposizio guztietan.

IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko abenduaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita pliken sistema erabil dezan oposizio guztietan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko abenduaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

José Miguel Nuin Morenok, Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldearen eledunak, Legebiltzarreko Erregelamenduarekin bat, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin:

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak bi mozio onetsi zituen 2010ean (maiatzaren 13an eta ekainaren 25ean), zeinen bidez Nafarroako Gobernua premiau baitzuen pliken sistema erabiltzera funtzio publikoan sartzeko oposizio-deialdi guztietan, oposizio-egileen anonimotasuna ziurtatzeko.

Pliken sistema objektibotasun- eta inpartzialtasun-berme bat da oposizio-egileen kalifikazioari begira, eta, horrenbestez, metodo eraginkorra da administrazio publikoetako langileak hautatzeko prozesuetan manipulazioak eta ustelkeria ekiditeko.

Halere, Nafarroako Gobernuak ez zuen bete Parlamentuak onetsitako mozioetan adierazitakoa administrazio publikoko teknikaria (arlotik juridikoa) izateko lanpostuak betetzeko deialdi batean (azterketak 2010eko urrian –garatu beharreko gai teorikoak– eta abenduan –kasu praktikoa– egin ziren).

Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzailearen ekainaren 16ko 91/2008 Ebazpenaren bidez, administrazio publikoko teknikaria (arlotik juridikoa) izateko lanpostuak betetzeko oposizio baterako deialdia egin zen.

Deialdiko 6.5 klausulan jasotzen zenez, bigarren ariketa eta hirugarrena pliken sistemaren bidez egin behar ziren.

Halere, 2010eko martxoaren 23an, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak 59/2010 ebazpena eman zuen, zeinaren bidez aldatu baitzuen 91/2008 Ebazpenaren bidez deitutako oposizioko pliken sistema, halako moduan non ariketak ekitaldi publikoan irakurri beharko baitziren epaimahaiaren aurrean.

Ebazpen horretan ez zen justifikatzen zer dela eta egin zen epaimahai kalifikatzailearen aurrean oposizio-egileen anonimotasuna bertan behera uzten zuen aldaketa bat.

Ondorioa izan da oposizio horren emaitza errekurritu dutela dozena bat izangaik.

Izquierda-Ezkerran printzipio orokor gisa defendatzen dugu oposizio guztietan ziurtatu behar dela oposizio-egileen anonimotasuna epaimahai kalifikatzailearen aurrean.

Hartara, ziurtatu egingen dira objektibotasuna eta gardentasuna Nafarroako administrazio publikoaren zerbitzuko langileak hautatzeko prozesuetan.

Horregatik guztiagatik, Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak ondoko erabaki proposamena

onets dezan proposatzen dio Parlamentuko Osoko Bilkurari:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du pliken sistema erabil dezan funtzio publikoan sartzeko oposizio-deialdi guztie-

tan, oposizio-egileen anonimotasuna ziurtatze aldera.

Iruñean, 2011ko abenduaren 14an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azter dezan arrazoizkoa ote den Nafarroako Unibertsitateko langileen osasun prestazioa, oinarritzkoa nahiz espezializatua, kanpoan kontratatzen jarraitzea.

BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko abenduaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita azter dezan arrazoizkoa ote den Nafarroako Unibertsitateko langileen osasun prestazioa, oinarritzkoa nahiz espezializatua, kanpoan kontratatzen jarraitzea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko abenduaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko eledun Bakartxo Ruiz Jasok eta Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Comptos Ganberak, 2009ko abuztuan, fiskalizazio txosten bat egin zuen Nafarroako Unibertsitateak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko erabiltzaile talde jakin batzuei osasun laguntza emateko kontratuari buruz.

Txosten hartan adierazten da, kontratu horren aurrekari gisa, Nafarroako Unibertsitatea, 1982z geroztik, Gizarte Segurantzaren entitate lankidea dela bere langileei osasun-zerbitzuaren boronda-

tezko prestazioa emateko. 2008ko maiatzaren 1etik aurrera, izaera horri uko egin zion, eta Osasunbideak bere gain hartu zuen 7.800 inguru onuradun inguruko kolektibo batentzako osasun-prestazioa.

Txostenak azaltzen duenez, kontratazio-espedientean, Osasunbideak adierazten zuen ezen, orduko baldintzetan, foru erkidegoko sare publikoak ezin zuela bere gain hartu zerbitzu horren kudeaketa, gainerako erabiltzaileentzako laguntzaren kalitatea kaltetu gabe; horregatik, Nafarroako Unibertsitatearekin osasun-prestazio hori laguntza-kontratuaren bitartez hitzartzea proposatzen zen. Edozein modutan, agerikoa da ez zegoela baieztapen horiei eusteko moduko inolako txostenik.

Kontratu hark xede zuen, hortaz, Nafarroako Unibertsitateak bere langileei oinarritzko osasun-laguntza nahiz espezializatua ematea, 2008ko maiatzaren 1etik 2011ko abenduaren 31ra bitarteko indarraldiarekin.

Comptos Ganberaren aipatu txosteneko ondorioetan hitzez hitz adierazten denez, "interes publikoari erantzuteari buruzko justifikazioa indartzea komeniko zen; batez ere, zerbitzu hori bitarteko publiko berekiekin ematea praktikan ezinezkoa izateari buruzko aipamenarekin, eta horrek eraginen zuen kostuarenarekin."

Gomendio horrek are eta indar handiagoa dauka osasun arloko itunei eta deribazioei buruz ganbera horrek berak 2011ko urrian emandako azken bi txostenak ikusita; izan ere, gero eta zalantza-koagoak dira jarduketa horiek justifikatzeko erabili diren argudioak.

Hitzarmen horrek 3,3 milioiko kostua eragin zuen 2008an. Hiru urte geroago, 2011ko aurrekontuan, 5,6 milioi esleitu ziren horretarako. Osasune-

ko kontseilari Marta Vera andreak 2011ko irailaren 28an aurkeztutako doikuntza planean neurri eraginkor gisa planteatzen zen 2012tik aitzina Nafarroako Unibertsitatearen Klinikarekiko hitzarmena berrikustea, baina 2012rako aurrekontuen aurreproiektuan berriz ere ageri da kontusail hori, eta 5,3 milioi euro esleitzen dira horretarako.

Aipatu hitzarmena urte amaieran bukatuko denez, eta ikusita Osasun Departamentuak berriro ere egiten duela kontratua berritzearen aldeko apustua aurrekontu-kontsignazio handia eginez, beharrezkoa da aintzat hartzea Comptos Ganberak 2009ko txostenean egiten zuen azken gomendioa, zeinak ondokoa dioen hitzez hitz:

“Comptos Ganberak gomendatzen du Osasun-bideko zerbitzuek azter dezaten, kontratu hau amaitu baino lehen eta bere egiazko emaitzak, kostua eta tartean dauden gainerako inguruabar objektiboak kontuan hartuta, arrazoizkoa ote den 2012tik aurrera kanpoan kontratatzen jarraitzea pertsona-talde horri ematen zaion osasun-prestazioa.”

Horregatik guztiagatik, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu, eztabaidatu eta bozkatzeko:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du azter dezan, Comptos Ganberak gomendatzen duenari jarraikiz, arrazoizkoa ote den kanpoan kontratatzen jarraitzea Nafarroako Unibertsitateak bere langileei ematen dien osasun-laguntza oinarrikoa nahiz espezializatua.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du azterketa hori txosten batean jaso dezan, zeina Parlamentuak aztertu eta eztabaidatuko baitu.

3. Nafarroako Parlamentuak uste du txosten hori egiteak eta eztabaidatzeak kontratua berritzea edo berrikustea baldintzatu beharko lukeela.

Iruñean, 2011ko abenduaren 14an

Foru parlamentariak: Bakartxo Ruiz Jaso eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroa osoan errespetatzen euskaldunen hizkuntza eskubideak.

BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko abenduaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroa osoan errespetatzen euskaldunen hizkuntza eskubideak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko abenduaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta

hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Pertsonak, hizkuntzak eta kultura guztiak berdinak dira duintasunean. Guztiak behar dute berdintasunezko estatusa eta parekotasunezko egoera, mendetasunik gabe bizitzeko. Horretarako, hizkuntza bakoitzari dagozkion nagusitasuna eta iraunkortasuna bermatu behar zaizkio bere lurralde osoan.

Euskara bertako hizkuntza izaki, Nafarroako berezko hizkuntza, bertan euskaraz bizi nahi dutenen hizkuntza eskubideak errespetatu behar dira. Hizkuntza eskubideak izan badira, eta bere horretan onartu izan ditu Nafarroak zenbait lekutan. Herritarren hizkuntza eskubideak errespetatzeko bideak eta neurriak jartzea dagozko administrazioari.

Nafarroan, egun, gauza oso larriak gertatzen dira, hizkuntza eskubideen bermea inola ere betetzen ez dela agerian uzten dutenak. Esaterako, euskaraz aritzen diren komunikabideak ez dira sustatzen, ez dira diruz laguntzen. Gainerako

komunikabideetan euskararen presentzia ez da gertatzen, ezta gertarazten ere. D ereduaren zabalpenean sekulako zailtasunak daude, ukazioak eremu ez euskaldunaren kasuan. Gurasoek seme-alabak autoz, busez eta abar eraman behar izaten dituzte haien eskola hautua errespetatzen dadin. Helduen Euskalduntze Alfabetatzea itozteko zorian ari da, eta bertako hizkuntza ikasteko, Nafarroako eremu handienean diru asko ordaindu behar da poltsikotik. Herritarrok, behin eta berriz, eskubideak aitortzen zaizkigun eremuan ere euskaraz artatuak izateko zailtasun ikaragarriak ditugu: administrazioan, Osasunbidean, kultur eremuetan... administrazioa euskalduntzeko ez dago planik, ez dago asmorik. Euskararekiko antolatze eza eta utzikeria da egun daukagun hizkuntza politika. Izan ere hizkuntza politika egiten dena da, baina egiten ez dena ere hizkuntza politika da.

Euskararen Legeak 25 urte beteko ditu 2011ko abenduaren 15ean. Bistan da lege hau baztertzaila dela eta 1986an egindako lurraldeen banaketa Nafarroako jendartearen eskubidez zatikatzen duela. Orduetik hona gainera, elebidunen kopurua hazten

ari da eta hizkuntza eskubideen aitortzak lurralde osora behar du zabaldua izan.

Beharrezkoa da gaurdanik, gure Nafarroan, nafar guztien hizkuntza eskubideen errespetua bermatzea. Horretarako, Nafarroako Parlamentuak ondoko konpromisoak hartzen ditu:

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroa osoan euskal hiztunen hizkuntza eskubideak errespetatzen.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du nafar guztien hizkuntza eskubideak bermatzeko bidean, lege berri baten bidea ireki dezan.

3. Lege honek, berean jasoko ditu nafar guztien hizkuntza eskubide guztiak errespetatzeko estatus egoki baten estaldura eta eskubide horien bermerako beharrezko neurri eta baliabideak.

Iruñean, 2011ko abenduaren 15ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro eta Bakartxo Ruiz Jaso

Mozioa. Horren bidez, Errege Etxea premiatzen da urtero jakinaraz dezan nola banatzen diren Estatuko Aurrekontuen kargura jasotzen dituen diru kopuruak.

IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko abenduaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Errege Etxea premiatzen baita urtero jakinaraz dezan nola banatzen diren Estatuko Aurrekontuen kargura jasotzen dituen diru kopuruak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko abenduaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Txema Mauleón Echeverriak, Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldearen eledunak, Legebiltzarreko Erregelamenduari bat, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

1978ko Espainiako Konstituzioak behin bakarrik aipatzen ditu errege-etxearen kontuak. 65.1 artikuluan aipatzen ditu, non ondokoa esaten baita: "Estatuaren aurrekontuetatik diru kopuru bat jasotzen du Erregeak bere familia eta errege-etxea mantentzeko, eta berak erabakitzen du nola banatu." Ez da inolaz ere esaten banaketa horrek opakua eta sekretua izan behar duenik, bakar-bakarrik ezartzen baita Erregeak erabakitzen duela nola banatu.

Azken egunotan jakin dugu Iñaki Urdangarin eta Cristina de Borbón partaide diren sozietateak eta elkarteak ustez inplikaturik daudela negozio ilunetan, eta epaitegiak horiek ikertzen ari direla. Zuzenbide Estatua aldeztu dugun neurrian, kasua azken bururaino, ondorio guztiekin, iker dadila espero dugu.

Auziak epaitegietan egin dezakeen bidez harago, premiazkoa da urratsak egitea errege-etxearen kontuen gardentasunaren xerka; izan ere, gai bereziki sentibera da horako hori, errege-etxearen iturri bakarra ez baitira funts publikoak. Estatu-buruaz ari gara, eta horrek esan nahi du Estatuaren Aurrekontuetatik heldu ez diren funtsek ere sor ditzaketela zalantzak, errege-etxeak goi mailako harremanak baliatzeko izan dezakeen ustezko gaitasunaren ondorioz.

Hala ematen du gertatu dela, esate baterako, ikertzen ari diren traman, non dirutza handia ordaindu bide baita txosten barregarri edo egon ere ez dauden txosten batzuen truke: influentzia horiek baliatu diren ala ez alde batera utzita, ematen du norbaitek pentsatu zuela horiek berari mesede egin diezaioketela.

Hala, Estatuko beste goi kargu batzuen kasuan gardentasuna bete behar bat da, diru-sarrera publikoak zein diren jakite hutsaz harago doana. Diputatuek, adibidez, publiko egiten dituzte beren ondarea, jarduerak eta errentak, eta horri esker

jakin daiteke ea beren jardun publikoa baldintzatu lezaketen interesak dituzten.

Hori guztia dela eta, Nafarroako Parlamentuak erabaki du:

1.- Errege-etxea premiatzea eta hari exijitza publiko egin dezan, urtero-urtero, Estatuko Aurrekontuen kargura Erregeak bere familia mantentze aldera jasotako dirua nola banatzen duen, errentak eta soldadak barne.

2.- Errege-etxea premiatzea eta hari exijitza publiko egin dezan, urtero-urtero, errege-etxeko kide bakoitzaren ondarea, edozein sozietatetan izan ditzaketen akzioak barne.

3.- Errege-etxea premiatzea eta hari exijitza publiko egin ditzan, urtero-urtero, errege-etxeko kide bakoitzaren diru-sarrerak eta errentak, horien jatorria eta zer jarduerari zor zaizkion.

4.- Errege-etxea premiatzea eta hari exijitza publiko egin dezan, urtero-urtero, errege-etxeko kideek zer kargu dituzten GKE-etan, patronatuetan eta abar.

5.- Errege-etxea premiatzea eta hari exijitza publiko egin dezan, urtero-urtero, errege-etxeko kideek edo Ondare Nazionalak zer opari jaso dituzten, opari horien erabilera eta gozamina haiei badagokie.

Iruñean, 2011ko abenduaren 15ean

Foru parlamentaria: Txema Mauleón Echeverría

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu Espainiako Gobernuak espetxe-politika malgutzearen aldekoa dela.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2011ko abenduaren 19an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak adierazten du, ETak jarduera terroristen amaiera iragarri ostean eta iragarpen horrek atzera bueltarik izan behar ez delako uste osoz, Espainiako Gobernuak espetxe-politika malgutzearen alde dagoela, halako moduan non delitu terroristak direla-eta kondanatutako pertsonak beren sorterritik edo bizilekutik

gertuko espetxeetan beteko luketen beren kondena, aldez aurretik horretarako eskaera eginez gero eta beren ekintzengatik damua agertuz gero. Eta orobat eskatzen du aintzat har daitezen, espetxe arloko legediaren barruan, gaixotasun larriak dituztenen egoera eta aipatu malgutzean eragin dezaketen bestelako neurri batzuk.”

Iruñean, 2011ko abenduaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, gatazkaren biktima guztiei, bazterketarik gabe, aitortpena eta ordaina emateko eta beharrezkoa den adiskidetze sozialean sakontzeko ekimenei buruzkoa.*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko abenduaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, gatazkaren biktima guztiei, bazterketarik gabe, aitortpena eta ordaina emateko eta beharrezkoa den adiskidetze sozialean sakontzeko ekimenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2011ko abenduaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

• Nafarroako Gobernuak zer ekimen garatuko ditu gatazkaren biktima guztiak aintzatesteko, inor ere bazter utzi gabe, eta haiei ordaina emateko eta beharrezkoa den gizarte-adiskidetzearan sakontzeko?

Iruñean, 2011ko abenduaren 12an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, ETAk ekintza armatuen behin betiko amaiera iragarri osteko segurtasun-neurriei buruzkoa.*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko abenduaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, ETAk ekintza armatuen behin betiko amaiera iragarri osteko segurtasun-neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2011ko abenduaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

• ETAk bere jarduera armatua behin betiko bukatutzat eman duela iragarri ostean, Nafarroako Gobernuak zer neurri aldatu edo kenduko ditu segurtasunari dagokionez?

Iruñean, 2011ko abenduaren 12an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, 2012ra atzeratutako ordainketei buruzkoa.*ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko abenduaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, 2012ra atzeratutako ordainketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2011ko abenduaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Osasuneko kontseilari Vera andreak Osasun Batzordean ahoz erantzun dezan:

Zenbait ordainketa, farmazialariei eta osasun arloko langileei egin beharrekoak kasu, 2012ra arte atzeratuko direla jakin dugunez, ondokoa jakin nahi dugu:

1.- 2011n ordaindu beharreko zenbat diru atzeratu da 2012ra? Zer kontzepturi dagokio diru hori?

2.- 2012rako aurrekontuko zer kontusailen kargura egingen dira ordainketa horiek?

Iruñean, 2011ko abenduaren 15ean

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

Galdera, jakiteko zergatik Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak informazioa ukatzen dien eskatzen duten parlamentu-taldeei.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko abenduaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zergatik Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak informazioa ukatzen dien eskatzen duten parlamentu-taldeei.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2011ko abenduaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasuneko kontseilari Álvaro Miranda Simavilla jaunari, idatziz erantzun diezaion: .

Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak zergatik ukatzen die parlamentu-taldeei eskatzen duten informazioa?

Iruñean, 2011ko abenduaren 15ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Parlamentuko Mahaiaren abenduaren 19ko Erabakia, Erregistro Telematikoaren funtzionamenduari buruzkoa, Arartekoari dagokionez.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko abenduaren 19an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuak eta Nafarroako Arartekoak lankidetzaz hitzarmen bat sinatu zuten 2011ko urriaren 18an, beren artean harremanetan jartzeko bideak garatze aldera. Hartan, bi aldeek konpromisoa hartu zuten beren harreman-esparruan informazioa izapidetzerakoan eta dokumentazioa trukatzekoan prozedura elektronikoa eta, kasu bada, telematikoa baliatzeko.

Xede horiek betetze aldera, Nafarroako Parlamentuak, hitzarmen horretako hirugarren klausularekin bat, Parlamentuaren Erregistro Telematikorako sarbidea eman dio Nafarroako Arartekoari. Sarbidea eranskin gisa doazen funtzionamendu-jarraibideekin bat eginen da, eta Arartekoak alde aurretik ezagutu eta onetsi ditu jarraibide horiek, lankidetzaz hitzarmen horretan ezarritako esparruaren barruan.

Hori horrela, Erregelamenduko 37.1.1 artikulurekin bat, hona ERABAKIA:

1. Ezartzea ezen 2011ko abenduaren 20tik aitzina –asteartea da–, Nafarroako Arartekoarekin trukatu beharreko informazio eta dokumentazio guztia Nafarroako Parlamentuaren Erregistro Telematikorekin bidez izapidetuko dela, hurrengo atalean ezartzen diren jarraibideekin bat; salbuespenez, erregistroa bertaratuta aurkeztu ahalko da dokumentazioa, bide hori baliatzea komenigarriagoa dela iritziz gero.

2. Onestea Nafarroako Parlamentuaren Erregistro Telematikorekin funtzionamendu-jarraibideak, erabaki honen eranskin gisa ageri direnak.

3. Ezartzea ezen 2011ko abenduaren 20tik aitzina –asteartea baita–, Nafarroako Parlamentuak posta elektronikoa bidez igorriko dizkiola deialdi eta ofizio guztiak Nafarroako Arartekoari, “Ofizioak eta deialdiak posta elektronikoa bidez igortzea” moduluaren bidez hain zuzen ere, erregistro@defensonavarra.com helbide elektronikora.

4. Legebiltzarreko zerbitzuei agintzea hartu beharreko neurriak har ditzaten, aurreko ataletan xedatutakoa bete dadin.

5. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2011ko abenduaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Eranskina

Nafarroako Parlamentuaren Erregistro Telematikorekin funtzionamenduari buruzko jarraibideak, Arartekoari dagokionez

Erregistro telematikorako esteka:

Nafarroako Parlamentuaren Erregistro Telematikorako esteka Nafarroako Parlamentuaren web atariko “Atal Pribatuan” egonen da. Bertatik bidali ahal izanen da informazioa Nafarroako Parlamentuko Erregistroa.

Nork duen zilegi erregistro telematikoa igortzea:

Nafarroako Arartekoak eta horretarako baime-na duten haren langileek soilik bidali ahalko dituzte erregistro telematikoa.

Horiek guztiek helbide elektronikoa aktibo bat eduki beharko dute Agoran.

Kautotzea:

Parlamentuaren Erregistro Telematikoa sartu ahal izateko, Txanponen eta Zigiluen Fabrika Nazionalaren ziurtagiri digital bat eduki beharko dute eta sistemak hura kautotuko du. Gero, haien eta Parlamentuaren zerbitzariaren arteko konexio segurua ezarri ahalko da.

Bistaratu den lehenengoa izanen da konexio segurua ezartzeari buruzko abisua. “Acceptar” klikatu ondoren eta ziurtagiriaren IFZa irakurrita, kasuko pertsona identifikatuko da.

Erregistro Telematikoan datuak sartzea eta datuak igortzea:

Behin identifikatu ondoren, informazioa hartze-ko orrialde bat agertzen da, honako eremuak dituena:

Igorlea

Kautotutako pertsonaren izena eta titular den erakundea ageri dira.

Dokumentu mota

Igortzen ari den dokumentuaren mota hautatu behar da.


Dokumentuari atxikitako espedienteak:

Espediente berria – Espediente mota

Lehendik dagoen espedienteak – Espediente zenbakia

Igortzen den informazioak espediente berri bat ireki beharra ekartzen badu, “Nuevo expediente” markatu beharko da eta sortu beharreko espedientearen tipologia hautatu beharko da.

Igortzen den informazioa lehenik dagoen espediente bati lotuta baldin badago, espediente zenbakia “Numero de expediente” eremuan jarri beharko da.

Orrian  ikonoa ageri da, zeinak espediente-kontsultarako sarbidea ematen baitu, kasuko espediente zenbakia jakiteko laguntza gisa.

Igorri beharreko dokumentazioaren deskribapena

Erregistrora bidaltzen den dokumentazioaren deskribapena.

Testua - Erantsitako fitxategia

“Fichero adjunto” botoian klikatuta, leiho bat ireki ahalko da, eta horren bidez hautatu ahalko da Erregistrora igorri nahi den fitxategia, hain zuzen ere sortzen den oharrari atxikiko zaiona. Fitxategi hori Officeko edozein fitxategi zein pdf fitxategi bat izan daiteke.

Fitxategiak Nafarroako Arartekoaren Txanponen eta Zigiluen Fabrika Nazionalaren ziurtagiri digitalaren sinadura izanen du.

Botoiak-Aukerak:

Limpiar

Eremuetan sartutako informazioa ezabatu egiten du. Datuak gaizki sartu direnean erabiltzen da.

Firmar y Enviar:

Inprimakia elektronikoki sinatuko da, Nafarroako Arartekoaren ziurtagiriarekin edo hark gaitutako langileenarekin.

“Firmar y Enviar” botoia sakatutakoan, azken ohar bat agertuko da sinadura berresteko edo ezezteko, eta jakinarazten da ezen, behin sinatuta, ezin izanen dela ezer aldatu.

“Cancelar” sakatuta, sinadura ezeztatu eta informazioa sinatu gabe eta Erregistrora igorri gabe geldituko da.

“Aceptar” botoia sakatzean, igorleari sinadura-ren pasahitz pertsonala eskatuko zaio, igorri behar duen informazioa modu elektronikoki sinatuta gera dadin.

Behin pasahitza sartuta (sinadura elektronikoa-ren exekuzioa), informazioa Parlamentuko sistemak jasoko du, eta, modu automatikoki, eskaeraz-zenbaki bat esleituko dio, zeinak igorritako informazioa identifikatzen baitu.

“Aceptar” botoia sakatzean, eragiketa behar bezala egin dela adierazteko mezu bat ageriko da pantailan.

Ondoren, Nafarroako Parlamentuaren komunikazio bat jasoko du eskatzaileak posta elektronikoa-ren bidez, ziurtagiri gisa, bere eskaria jaso izanaren berri emateko.

Eskaeraren egiaztagiria jasotzen ez bada, horrek esan nahi du dokumentazioa ez dela jaso Erregistro telematikoan, eta, beraz, pertsona interesdunak beste une batean aurkeztu behar duela.

Erregistro telematikoan idatzoharra egitea:

Nafarroako Arartekoak edo hark gaitutako langileek igorritako erregistro telematikoak sarrerako ontzi batean geldituko dira, Parlamentuko Erregistroak haien idatzoharra egin zain.

“Anotación en el Registro de Entrada” funtzioetik, Erregistroaren ardura duenak “Pendientes” botoia sakatzen duenean, igorri diren erregistro telematiko-koen zerrenda ikusiko du, eta aukera izanen du horiek hautatzeko eta horien idatzoharra egiteko.

Behin erregistro telematiko baten idatzoharra eginda, hura igorri duenak Parlamentuaren mezu elektronikoki bat jasoko du, bere eskaerari esleitu zaion erregistro zenbakiarekin.

Idatzoharrik ez bada egiten, aplikazioak automatikoki igorriko dio mezu elektronikoki bat Agoran aktibatuta duen kontura, eta, bertan, adieraziko zaio inongo argibiderik behar izanez gero zer hel-

bideren bidez jar daitezkeen harremanetan Nafarroako Parlamentuaren Erregistroarekin.

Dokumentuen aurkezpena eta Erregistro Telematikoan dituen eraginak:

Nafarroako Parlamentuaren Erregistro Telematikoan urteko egun guztietan eta eguneko 24 orduetan aurkez daitezke dokumentuak.

Nafarroako Parlamentuaren Erregistro Telematikoan aurkezten diren dokumentuak, Erregelamenduan ezarrita dauden epeen edo bestela ezar daitezkeen epeen betetzeari begira, ulertuko da egun horretan bertan aurkeztu direla, baina, betiere, Legebiltzarreko Mahaiak Erregistro Orokorrentzat ezarritako ordutegi ofizialaren barruan sartu badira.

Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorra jendearentzat irekita dagoen ordutegitik kanpo jasotako dokumentuak, Erregelamenduko epeen edo bestela ezar daitezkeen epeen betetzeari begira, ulertuko da hurrengo egun baliodunean aurkeztu direla. Hori kontuan hartuta, horiek izanzen dira, ireki bezain laster, idazpena egin zaien lehenbizikoak. Idazpenak, betiere, aurkezpen-

ordenaren arabera egingen dira, edozein izanik ere aurkezpen-ordua.

Mantentze-lan teknikoak edo arrazoi operatiboak direla medio Erregistro Telematikoan dokumentuen jasotzea eten behar izan denean, behar-beharrezkoa den denboran, ahal bezain laster emanen zaio horren berri Nafarroako Arartekoari, Akordioaren 3. atalean zehaztutako helbide elektronikoaren bidez.

Parlamentu-espeditenteak EZ diren idazkiak eta komunikazioak Erregistro telematikoan aurkeztea:

Baldin eta bide telematiko bidez erregistratu beharreko dokumentu-mota EZ bada parlamentu-espeditenteen xede den idazki edo komunikazio bat baina Parlamentuko Erregistroan jaso beharra badago, honela jokatu da:

– Nafarroako Arartekoak edo hark horretarako gaitutako langileek eskabide telematikoak bidaliko dute erregistrora.

– Nafarroako Parlamentuko Erregistroko langileek erregistroko idatzoharra egingen dute, eta espeditente berri bat sortzen den unean “SYC Soli-citudes y otras comunicaciones” dokumentu-mota gisa kalifikatuko da.

Mahaiaren 2010eko abenduaren 20ko erabakiaren bidez onetsitako lan-egutegia aldatzea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko abenduaren 19an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Langileen Batzordearen 2011ko abenduaren 14ko Erabakiaren bidez eskatu zen 2011ko abenduaren 27tik 30era bitarteko egunetan goizeko lanaldia ezartzea.

Kontuan harturik abenduaren 27, 28, 29 eta 30eko arratsaldeetan ez dela Parlamentuko jarduerarik izanen, eta kontuan harturik izandako aurrekariak, hau da, Aste Santuaren ondorengo lan-astea zela-eta Nafarroako Parlamentuaren eta Langileen Batzordearen arteko erabakiak (lan aurreikuspenei lotuak, betiere), hona ERABAKIA:

1. Mahaiaren 2010eko abenduaren 20ko erabakiaren bidez onetsitako lan-egutegia aldatzea;

halatan, 2011ko abenduaren 27, 28 eta 29ko lanaldia goizekoa izanen da, baina horrek ez du ezertan eragotziko beharrezkoak diren langileak esku-ragarri egotea Legebiltzarreko lana goizeko ordutegitik kanpo egiteko, beharrezkoa izanez gero.

2. Nafarroako Parlamentuko Erregistroaren ordutegia, Mahaiaren 2010eko abenduaren 20ko Erabakiaren bidez onetsitakoa, aldatzea; halatan, 2011ko abenduaren 27, 28 eta 29an, 09:00etatik 14:30era bitarte egonen da zabalik.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2011ko abenduaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

